

GEURE BURUARI BARREZ

1

Gaur iso ta bihar arre,
zergaitik bizi hasarre?
Inok baino lehen geuk egin
geure buruari barre.

2

Inok ez dau nahi zahartzerik,
hilten ez bada gazterik,
holan eginak gara ta
ez dago beste biderik.

3

Gaur zaharrak ez dau balio,
eta zer erremedio?
Eskerrak horrela ez dan
Jesusen Ebanjelio.

4

Aspaldian nabil herren,
eta horrek zer dakarren?
Ez noa mezara, baina
bai tabernara pozarren.

5

Baneki eta banengo,
neu nintzake lehenengo;
zaindu aitita burutik
ai ene Ama Karmengo!

6

Egunez edonun lolo,
gauez itzarrrik mozolo;
aspaldi baten hor dabil
ganora barik Martolo.

7

Arnasa nekez ta labur,
atzeko haizeak samur;
Datorrena ondo betor
eta doanari agur.

8

Entzunda daukat behinola:
Deabruaren eskola,
deabru dalako baino
zaharra dalako daukola.

9

Aititak ala amamak
nok egin noren esanak?
Biak agindu gura ta
hortik sortzen dira lanak.

10

Gaztea beti gaztelu,
zaharra, ostera, ganbelu;
ekilibrioa hartzeko
inoiz ez da berandu.

11

Ez egon gora begira,
Azal-hazurrak sasira;
labea ta agurea
ahotik berotzen dira.

12

Daukadana ez baneuka,
hak ez daukana baleuka...
gogoko jakon guztia
inok munduan ez dauka.

13

Gazte batek ahal dauana,
ta zahar batek dakiana,
biak alkartu ezkerro
konponduko geunke dana.

14

Gure aberastasuna:
kontsejua ta zentzuna;
inok nahi ez dakiguna
eta danak daukaguna.

15

Urteak urte bitarte,
Baina ez gara aparte;
hau holan da ta izango
mundua mundu dan arte.

16

Zaharra da gazte izana,
gaztea zahar izango dana;
geure kontra zuzen dator
alkarren kontra esana.

17

Gazte nintzanean dama,
Orain egin naz amama;
hiloba, neugan ikusi
laster izango zarana.